

05-05-2024

- *Ibilbide honetan pagadiak eta larreak zeharkatuko ditugu. Urbiako larreak ospetsuak eta historiaurretik ezagunak dira; hala erakusten dute inguruko monumentu megalitikoek, saroiak eta artzainen txabolek. Inguru horretan daude Euskadiko gailurrik altuenak, eta gu Artzanburura igoko gara.*
- *Oraingo honetan, ibilbide luzea egingo dituen Gilurrakideekin bat egingo dugu Urbiara igotzeko, bertan elkarrekin hartuko dugu hamaiketakoa, eta gero talde bakoitzak bere ibilbidea jarraituko du.*

Arantzazu (755) Santutegira bisita labur bat egitea proposatzen dugu ibilbidea hasteko, Gipuzkoako enklabe honen esanahi erlijioso, artistiko eta kulturala eta kokapen aparta ulertzeko. Ibilbidea Urbiarako ohiko bideari jarraituz hasiko dugu, hego-ekialderantz, **Elorrolako** lepora heldu arte (1161) (1:30), eta handik gutxira **Urbiako** baselizara eta aterpera iritsiko gara (1130) (1:40)(4.6km).

Handik, ipar-mendebalderantz eta Enaitz mendiaren gailurra eskerrean utzita, PR-GI-3006 bidezidorrari jarraituko diogu, **Iparbakoitz** leporaino (1246). Puntu honetan, markatutako bidetik irtengo gara eta larretatik igoko gara iparralderantz **Artzanburu** tontorreraino (1335) (3:00).



Hiru haran menderatzen dituen gailurra da hau, Aizkorri mendilerroaren ekialdeko partean, eta igoeran Artzanburuko **trikuaharria** ikusteko aukera dugu. Bararandiaranek aurkitu zuen trikuaharria 1917. urtean, eta inguru horrek duen garrantzi megalitiko-erlijiosoaren erakusgarri da, baita Neolitotik aurrera artzaintzan izan duen etengabeko okupazioaren erakusgarri ere.

Bidetik Arabako isurialdearen ikuspegi ederra dago, baita Aloña mendilerroarena ere. Denbora gutxian, larreetatik jaitsiko gara **Eskistako** aterperaino, teilatu borobildua duena (1111)(3:30). Han, bide markatuarekin bat egingo dugu (GR 120 / GR 34 / PR-GI3006), eta pistatik joango gara **Mallarrateko** leporaino (1055). Bertatik, informazio-zutoin baten ondoan, eta pista utzita, ezkerretara joko dugu. GR120 GR 34 ibilbidea jarraitu besterik ez dugu egin behar, eta **Duruko** txaboletatik, bide aladapatsu batetik jaitsiko gara Arantzazura (19km)(4:30).

EGURALDI IRAGARPENA

Egunero gaurkoratzen da

- EUSKALMET
- AEMET
- METEOBLUE meteograma

Compártelo:

- Click to share on WhatsApp (Opens in new window)
- Click to share on Telegram (Opens in new window)
- Click to share on Facebook (Opens in new window)
- Click to share on X (Opens in new window)
- Click to email a link to a friend (Opens in new window)

DATU TEKNIKOAK

Jarduera mota	GAILURRA TXIKI. Familientzako irteera
Kokapena	
Metatutako desnibela	+ 680 m / - 680 m
Luzera	11'5 Km
Jardueraren iraupenaren aurreikuspena	

Elkartzeko tokia eta ordua

8:30 Gailurra
9:45 Arantzazuko santutegiko sarreran

Ibilbidearen hasiera eta bukaera

Arantzazuko santutegia (sarrera) 10:00etan.

Irteerarako izena emateko azken eguna

04-05-2024

Jakin beharreko kontu teknikoak

Prestakuntza fisiko beharrezkoa

Material tekniko beharrezkoa

1. Jarduerarako eta urte-sasoirako egokiak diren mendiko arropa eta oinetakoak.
2. Edaria eta janaria egun osorako. Iturri batzuk daude ibilbidean.
3. Txikiek A4 plastikozko zorro batean eraman dezakete mapa, ibilbibearen datuak kontsultatzeko.

Bestelako oharrak

KONTUAN IZAN

Irten aurretik,

1. Informatu : irakurri arreta handiz informazio-fitxa eta mapa , zure familiari egokitutako ibilbidea den erabakitzeke.
2. Motibazioa: Komentatu zure seme-alabekin ibilbidea , erakutsi argazkiak , emaezu hurren mapa marraztu eta margotu dezaten.
3. Prestatu motxila: kontuan izan urteko garaia eta egin beharreko jarduera , behar dena. Neguko igoera izango denez, posible da tontorrean elurra topatzea, beraz, eskularruak, txanoa, buff-a etab eramatea gomendagarria litzateke. Oso gomendagarria da txikiek ere beren motxila txikia prestatzea, hamaiketakoarekin

Mendian:

4. Familiak zarete zuen seme-alaben arduradunak. Umeak zaindu eta lagundu.
5. Gailurra mendi taldearen antolatzaileek ibilbidea eta jardueraren xehetasunak ezagutzen dituzte. Egin kasu mesedez.
6. Zalantzak edota arazoak antolatzaileekin komentatu, edo zuekin joaten direnekin.
7. Taldean: ez aurreratu eta ez atzeratu zure kabuz. Batzuetan geldituko gara taldea batzeko, beste batzuetan jateko edo jolasteko.
8. Landareak eta animaliak errespetatu. Ez bota harririk eta ez atera zarata handirik. Bildu eta eraman zure zaborra.
9. Ikusi eta ikasi: txikien jakin-minaz kutsatu, egon prest gauza berriak ikasteko, eta dakizuna konpartitzeko.
10. Sustatu laguntasuna. Gailurrera iristea polita da baina ez da garrantzitsuena.

Argibide gehiago:

Lluis 619763zero88

